



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

UDALBATZAK 2017KO IRAILAREN 28AN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURA

BERTARATUAK:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Itziar Arratibel Imaz
Jesus Peñagarikano Labaka
Jon Mikel Iglesias Otegui
Irati Ozaita Azpiroz
Victoria Rodriguez Feloaga
Eleuterio Sanchez Garcia
Juan Luis Cid Conde

BITARTEKO IDAZKARI :

Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Ibarran, **bi mila eta hamazazpiko irailaren hogeita zortzian** arratsaldeko zazpi zirenean udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ezohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkate jauna izan zen, eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Egintza ireki aurretik Alkateak eta EAJ-ko zinegotziek Idazkariari adierazten diote 4. puntuko mozioa bateratu egiten dutela eta soilik 5. puntua bozkatuko dela. Idazkaria jakinaren gainean gelditzen da.

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

1.- 2017ko uztailaren 27an egindako ohiko udalbatza bilkuraren aktaren onarpena

2.- 291/2017tik 354/2017ra Alkate Dekretuak jakinaraztea

3.- Azkue Poligono erresidentzian kokaturik dauden lurren erabilera eta jabari publikoaren doako lagapenaren onarpena.

4.- EH Bilduk Udalbatzari aurkezten dion mozioa: Kataluniarekin bat, demokraziarekin bat lemapean.

2017/09/28



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

5.- EH Bildu eta EAJ-k Udalbatzari aurkezten dion mozioa: Kataluniari buruz

6.- Galderak eta eskaerak

LEHENA:

2017KO UZTAILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZA BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2017ko uztailaren 27ko ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botorekin (5 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2017ko uztailaren 27ko ohiko bilkurako akta

BIGARRENA:

291/2017TIK 354/2017RA ALKATE DEKRETUAK JAKINARAZTEA

Alkateak azken ohiko bilkuratek, 2017ko uztailaren 27tik aurrera onarturiko dekretuen berri eman du, hain zuzen 291/2017tik 354/2017ra.

Jakinaren gainean gelditu da Udalbatza

2017/09/28



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

HIRUGARRENA:

AZKUE POLIGONO ERRESIDENTZIALEAN KOKATURIK DAUDEN LURREN ERABILERA ETA JABARI PUBLIKOAREN DOAKO LAGAPENAREN ONARPENA

2016ko azaroaren 25ko data duen Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte politiketako sailburuaren agindu 2015eko apirilaren 20koak Ibarra Udalaren alde doako lagapen bat egiteko asmoa agertzen du.

Bertan, PR1 Azkue Poligonoan inskribaturik dauden (eta egun Euskal Autonomi Elkargoaren jabetza diren) honako terreneen doako lagapena proposatzen da:

1. PR1 Poligonoan kokaturiko lursaila, Ibarra; 105,4 m² ko azalera eta muga hauek: iparraldean Euskalerrria kalea (errepidea), hegoaldean gainerako finka nagusia eta Tomas Ecenarro Ezcamendiren oinordekoen erantsiak, ekialdean errepide publikoa eta mendebaldean gainerako finka nagusia. Erregistro datuak: 2372 liburukia, Ibarra 93 liburua, 39 folioa eta 4646 finka. Titularra: Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
2. PR1 Poligonoan kokaturiko lursaila Ibarra; 183,6 m² ko azalera eta muga hauek: iparraldean Euskalerrria kalea (errepidea), Karitateko Alaben erantsiak, ekialdean, gainerako finka nagusia eta mendebaldean, errepide publikoa. Erregistro datuak: 2372 liburukia, Ibarra 93 liburua, 41 folioa eta 4647 finka. Titularra: Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa.

Lursail horiek eta beren bideei dagozkienak, eremu berdeak, erabilera publikoko eremu libreak eta zerbitzu sareak.

Orain Azkue PR1 ean dauden lurren erabilera eta jabari publikoen lagapena egin behar da Ibarra udalaren alde, eta goian aipaturiko Euskal Autonomia Erkidegoko titularitateko lurak dira, udala agertzeko terreno horien erregistro titular gisa, indarrean dagoen legediaren arabera.

Azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren Bigarren Xedapen Gehigarriaren, Euskadiko Ondare Legearen Testu Bategina onartzen duenaren, 102 f, 104.2 eta 105 art.ek xedatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko jabegoko lurren doako besterentzea egiteko eskumena Enplegu eta Gizarte Politikako sailburuari dagokiola, sail horri loturiko terreneen kasuan, betiere, hiri lurretako edo lur hidratagarrietako lagatzea Lurzoru Legearen 25-2 a art.an jasotako helburuetara bideratzen bada; art. horietan jasotzen baita dotazio publikoetara bideraturiko derrigorrezko eta doako lagatzea eta kasu honetan aipaturiko baldintzak betetzen dira.

2017/09/28



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Kontuan izanda Enplegu eta Gizarte Politikako sailaren zerbitzu publikoaren desafektazio deklarazioa eta lagatzekoak diren terrenoen besterengarritasun-deklarazioa, hain zuzen, Euskadiko Ondare Legearen Testu Bateginaren VI tituluaren III kap.aren baldintzetan besterentzea egiteko, Agindu honetan jasotzat ematen dira, eta beraz, apirilaren 9ko 191/2013 Dekretuak emandako eskumenen arabera, lege horrek xedatzen baitu Enplegu eta Gizarte Politikako sailaren egitura organikoa eta funtzionala.

Doako lagapena ondoko baldintzei lotuta gelditzen da (eta beraz, erregistro inskripzioan berariaz jasota geldituko dira): Ibarra udalaren kargu izango da, eskritura publiko bidez lagapena sinatzen denetik, bideen, eremu berdeen erabilera publikoko eremuen kontserbazioa, lagapenaren xede diren zerbitzu sareekin batera.

Lagapen-hartzailearen kontura, hau da Ibarra udalaren kontura, izango dira eskritura publikoa gauzatzeko gastu guztiak eta Jabetza Erregistroan doako lagatzearen inskripzioa egitea.

Ahalduntzen dira Etxebizitza zuzendaria eta Gipuzkoako Lurralde ordezkaria, biak Enplegu eta Gizarte Politikako sailekoak, Agindu honetan jasotako beharrezko diren agiri publiko nahiz pribatu egiteko, bereziki, Notario aurrean jarduteko eta eskritura publiko egiteko Jabetza Erregistroan inskripzioa egin arte.

Ibarra udaleko idazkariak honako alderdi formal hauen berri ematen du:

Udal korporazioek ondasun eta eskubideak eskura ditzakete oinordetzan, lagapen edo donazio bidez Tokiko Erakundeen Ondasunen Erregelamenduaren 12 art.aren arabera, beraz ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onartua, eta doako ondasunen eskuratzea ez dago lotua inolako murrizketara. Halere, eskuratze horrek berekin badarama kostu bidezko baldintzarik, soilik onar daitezke ondasun hauek: espedientean egiaztatzen bada, zerga-kargaren balioak ez duela gainditzen eskuratzen denaren balioa. Hau da aplikatzeko legeria:

- Toki erakundeen ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 9, 10 eta 12. artikulua.
- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren Bigarren Xedapen Gehigarria, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartua.

Doako lagatzea onartzeko prozedura hau izango da:

- Jabetza Erregistroko ziurtagiri eskaera higiezinaren gainean sor daitezkeen titularitate eta kargei buruz.
- Udal zerbitzu teknikoaren txostena, ondasunaren tasazioa eta deskripzioari buruz eta Kontu-hartzailearen txostena non jasotzen den ohiko baliabideen portzentajea ondasunaren balioaren gainean.

2017/09/28



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Alkate ebazpen edo Ohiko bilkuraren erabaki bidez doako alegatzea onartu edo ezetsi egingo da eta interesdunari jakinaraziko zaio (non adieraziko zaion eskritura publikoa egiteko bertaratu beharra) eta udalaren Ondasun Inbentarioaren liburuan inskribatuko da aipaturiko ondasuna.
- Ebazteko eskumeneko organoa dela eta: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren Bigarren Xedapen Gehigarriak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartua, alkate eta tokiko erakundeetako lehendakariei dagokie, ondasunen gaineko emakidak esleitzea eta ondasun higiezinak eskuratzea, baldin eta aurrekontuko ohiko baliabideen ehuneko hamar gainditzen ez bada, ezta hiru milioi euro; halaber, beraiei dagokie ondarearen besterentzea, aipaturiko kopuruak gainditzen ez badira. Osoko bilkurari dagokio, halaber, korporazioko ondasunen gaineko emakida eta eskuratzea, baita ondare legediari loturiko eskubideak eskuratzea eta ondarea besterentzea alkate edo lehendakariari atxikita ez badaude eta balio historikoko edo artistikoko ondasunak edozein delarik beren balioa.

Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botorekin (5 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte politiketako sailburuaren agindu 2015eko apirilaren 20koak Ibarra Udalaren alde egiten duen doako lagapen.

BIGARRENGOA: Onartzea ondorengo terrenoak eskritura publiko bidez onartzea eta dagokion bezala jabetza erregistroan inskribatu eta ondoren udal inbentarioan inbentariatzea.

1. PR1 Poligonoan kokaturiko lursaila, Ibarra; 105,4 m² ko azalera eta muga hauek: iparraldean Euskalerrria kalea (errepidea), hegoaldean gainerako finka nagusia eta Tomas Ecenarro Ezcamendiren oinordekoen erantsiak, ekialdean errepide publikoa eta mendebaldean gainerako finka nagusia. Erregistro datuak: 2372 liburukia, Ibarra 93 liburua, 39 folioa eta 4646 finka. Titularra: Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
2. PR1 Poligonoan kokaturiko lursaila Ibarra; 183,6 m² ko azalera eta muga hauek: iparraldean Euskalerrria kalea (errepidea), Karitateko Alaben erantsiak, ekialdean, gainerako finka nagusia eta mendebaldean, errepide publikoa. Erregistro datuak: 2372 liburukia, Ibarra 93 liburua, 41 folioa eta 4647 finka. Titularra: Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa.

HIRUGARRENGOA: Ibarra Alkatea ahalmentzea lagapena aurrera eramateko egin beharreko izapide guztiak sina ditzan

2017/09/28



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LAUGARRENGOA: Onartzea lagapenaren izapidetzatik eratortzen diren kostu denak Ibarra Udalak ordaintzea

BOSGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte politiketako sailburuari.

BOSGARRENA:

EH BILDUK ETA EAJ-K UDALBATZARI AURKEZTEN DION MOZIOA: KATALUNIARI BURUZ

EH Bilduk eta EAJ-k honako mozioa aurkezten diote Udaltzari honek onar dezan:

Espainiako Guardia Zibila Katalunian egin duen operazioen larritasuna ikusirik, eta urriaren 1eko erreferenduma Kataluniako erakunde nagusiek herritarren nahiei bide emateko hartutako erabakia galarazteko Espainiako Gobernuak bultzatzen ari den neurri antidemokratikoei erantzunez, Ibarra Udalak ondorengo adierazi nahi du:

1. Oso kezkatuta gaude Espainiako Estatuak Katalunian izaten ari den esku-hartzearekin eta irmoki salatzen ditugu azken gertakariak/erasoak: Generalitateko hamalau kargudunen atxiloketak, miaketak eta etengabeko jazarpen polizial eta judizialak. Atxiloketa politikoak dira eta beraien delitua politika egitea soilik da. Salbuespen egoera ezartzen ari da Katalunian, eskubide zibil eta politikoak masiboki urratuz. Gertatzen ari dena asaldagarria eta onartezina dela uste dugu. Nahikoa dela esateko ordua da.
2. Gure elkartasun osoa helarazi nahi diegu atxilotuen eta jazartuen lagun eta senide, Kataluniako erakunde guztiei eta orokorrean Kataluniako herri osoari. Gure babesa eta laguntza izango dute, orain artean bezala, urriaren 1a bitartean, eta baita urriaren 1etik aurrera ere.
3. Urriaren 1eko erreferenduma Kataluniako herritarren gehiengoaren nahiari erantzuteko tresna demokratikoa dela eta, beraz, guztiz zilegia. Herritarrok gure etorkizuna erabakitzeke eskubidea edo herri honek autodeterminazio eskubidea du. Euskal Herriak eta Kataluniak libreki adierazitako herritarren borondatea bidez bere etorkizuna eraikitzeke eskubidea dute.
4. Kataluniako alkateak deklaratzera deitzea irmoki salatzen dugu eta ez dugu onartuko politika egitea delitu bilakatzea, demokrazia ezin baita Konstituzioara mugatu. Elkartasuna adieraztea nahi diegu espresuki alkateei.

2017/09/28



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

5. Udal honek kataluniarrek urriaren 1ean hartutako erabakia errespetatu eta aitortuko du eta beste erakundeei ere errespetatzeko deia egiten die. Horretarako erabaki honen berri, Kataluniako Parlament-eko lehendakariari, Madrilgo Gobernuako presidenteari eta Auzitegi Konstituzionaleko presidenteari ematea erabakitzen du. Gure udalerriko herritarrei ere jakinaraziko zaie erabaki honen berri.

Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botorekin (5 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Ibarra Udala Oso kezkatuta gaude Espainiako Estatua Katalunian izaten ari den esku-hartzearekin eta irmoki salatzen ditugu azken gertakariak/erasoak: Generalitateko hamalau kargudunen atxiloketak, miaketak eta etengabeko jazarpen polizial eta judizialak. Atxiloketa politikoak dira eta beraien delitua politika egitea soilik da. Salbuespen egoera ezartzen ari da Katalunian, eskubide zibil eta politikoak masiboki urratuz. Gertatzen ari dena asaldagarria eta onartezina dela uste dugu. Nahikoa dela esateko ordua da.

BIGARRENGOA: Gure elkartasun osoa helarazi nahi diegu atxilotuen eta jazartuen lagun eta senide, Kataluniako erakunde guztiei eta orokorrean Kataluniako herri osoari. Gure babes eta laguntza izango dute, orain artean bezala, urriaren 1a bitartean, eta baita urriaren 1etik aurrera ere.

HIRUGARRENGOA: Urriaren 1eko erreferenduma Kataluniako herritarren gehiengoaren nahiari erantzuteko tresna demokratikoa dela eta, beraz, guztiz zilegia. Herritarrok gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea edo herri honek autodeterminazio eskubidea du. Euskal Herriak eta Kataluniak libreki adierazitako herritarren borondatea bidez bere etorkizuna eraikitze eskubidea dute.

LAUGARRENGOA: Kataluniako alkateak deklaratzera deitzea irmoki salatzen dugu eta ez dugu onartuko politika egitea delitu bilakatzea, demokrazia ezin baita Konstituzioara mugatu. Elkartasuna adieraztea nahi diegu espresuki alkateei.

BOSGARRENGOA: Udal honek kataluniarrek urriaren 1ean hartutako erabakia errespetatu eta aitortuko du eta beste erakundeei ere errespetatzeko deia egiten die. Horretarako erabaki honen berri, Kataluniako Parlament-eko lehendakariari, Madrilgo Gobernuako presidenteari eta Auzitegi Konstituzionaleko presidenteari ematea erabakitzen du. Gure udalerriko herritarrei ere jakinaraziko zaie erabaki honen berri.

2017/09/28



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

SEIGARRENA:

GALERAK ETA ESKAERAK

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamazazpi direnean. Nik, behin-behineko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.

2017/09/28